

# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 1509

*AGINDUA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Auzolandegiak egitasmoan izena emateko kuotaren prezio publikoa ezartzekoa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko den irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 33. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta honen erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketan zerbitzu eta jardunak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren arabera, dagokion espedienteari Ogasun eta Finantza Sailak baiezko irizpena eman eta gero, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Prezio publikoaren zenbatekoa.

Auzolandegiak egitasmoan parte hartzeko izen-emate kuotaren prezio publikoa 110 eurokoa da.

2. artikulua.– Ordaintzeko epea eta modua.

Prezio publikoaren ordaintzeko epea eta modua urte bakoitzari dagokion Auzolandegiak egitasmoaren Oinarri Orokorren arabera egingo da.

EAEen, plazaren eskabidea txanda askean egin duen interesdunak dagokion inskripzio-kuota ordaindu beharko du, egun natural bateko epean, plaza hautatu eta hurrengo egunetik aurrera. Behin kuota ordainduz gero, plaza erreserbatuta gelditzen da eskatzailearen izenean.

Gaigabetasunak dituztenen kasuan, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eskatutako dokumentazioa bidali eta plazaren erreserba konfirmatu eta hurrengo bi egun naturaletan egingo da ordainketa.

#### AZKEN XEDAPENA

Honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 1a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.